Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4001

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 1ekoa, Familiako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko familiaren arloan programak eta jarduerak egiteko diru-laguntzen ebazpenari buruzko proposamena egingo duen kide anitzeko organoko partaideak izendatzeko.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2009ko apirilaren 8ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan familia-arloko programak eta jarduerak egiteko diru-laguntzak arautu ziren. Agindu horren 9.2 artikuluan jasotzen denez, diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bitartez ebatziko dira eta kide anitzeko organo bat egongo da, Familiako zuzendariak izendatutakoa; kide izango dira, bestalde, Familiako zuzendaria -lehendakari izango da- eta Familiako Zuzendaritzako hiru teknikari -horietako bat idazkari izango da.

Esandakoarekin bat, hau

EBATZI DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoan familia-arloko jardueretarako, zehazki, 2009ko apirilaren 8ko Aginduan araututakoetarako, diru-laguntzak ebazteko proposamena egiteaz arduratuko den kide anitzeko organoko kide izendatzea behean aipatzen direnak.

Lehendakaria:

Maria Dolores García García, Familiako zuzendaria.

Batzordekideak:

Nuria Estefania Garechana Unamunzaga.

Beatriz Solaun Presa.

Elena Echeberria Ochoa de Alda, idazkari izango dena.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 1a.

Familiako zuzendaria,
MARÍA DOLORES GARCÍA GARCÍA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

4001

RESOLUCIÓN de 1 de junio de 2009, de la Directora de Familia, por la que se nombra a los miembros del órgano colegiado encargado de formular la propuesta de resolución de las subvenciones para la realización de programas y actividades en el área de familia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El artículo 9.2 de la Orden de 8 de abril de 2009, por la que se regulan subvenciones para la realización de programas y actividades en el área de familia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone que las subvenciones se resolverán por el procedimiento de concurso y que habrá un órgano colegiado, designado por la Directora de Familia, que formulará propuesta de resolución, y que estará compuesto por la Directora de Familia, que lo presidirá, y por tres personas con nivel técnico de la Dirección de Familia, una de las cuales actuará como secretario o secretaria.

De conformidad con lo anterior,

RESUELVO:

Nombrar a las siguientes personas como miembros del órgano colegiado encargado de formular la propuesta de resolución de las subvenciones para la realización de programas y actividades en el área de familia en el País Vasco, reguladas por la Orden de 8 de abril de 2009.

Presidente:

D.ª María Dolores García García, Directora de Familia.

Vocales:

Nuria Estefanía Garechana Unamunzaga.

Beatriz Solaun Presa.

Elena Echeberria Ochoa de Alda, que actuará como secretaria.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de junio de 2009.

La Directora de Familia,
MARÍA DOLORES GARCÍA GARCÍA.